

Oposiciones docentes 2025/ 2025 irakasle oposizioak		
Cuerpo o puesto/ Kidegoa edo lanpostua:	Especialidad/Espezialitatea:	Idioma/ Hizkuntza:
<i>Bigarren Hezkuntza</i>	<i>Ekonomia</i>	<i>Euskara</i>
PRUEBA PRÁCTICA-PROBA PRAKTIKOA		

Iraupena: 3 ordu

1. ariketa	1,5 puntu
-------------------	------------------

Egurra SA enpresak zura saltzen du, eta urtean 30.000 tona saltzea aurreikusten du.

Eskaera bakoitzaren kudeaketa-kostua 6.000 eurokoa da, eta zura tona bakoitzaren urteko biltegiarzte-kostua 10 eurokoa da.

Horniketa-epea 16 egunekoa da. Kontuan hartuta enpresa honek urtean 320 egunetan lan egiten duela:

a. Kalkula ezazu eskaera-bolumen optimoa eta urteko eskaera kopurua. (0,4)

b. Kalkula ezazu biltegiaren urteko kudeaketaren kostu osoa eta eskaera puntua. (0,4)

Hornitzaileak horniketa epearen baldintza berriak ezarri ditu. Hauen arabera, horniketa-epe arruntak 16 egunekoa izaten jarraituko du, baina ez-ohiko baldintzetan 24 egunetara gehienez luza daitekeela adierazten du.

c. Kalkula ezazu biltegiaren urteko kudeaketaren kostu oso berria. (0,3)

d. Azkeneko egoera kontuan hartuta, egin ezazu urtean biltegian gertatuko diren izakinen sarrera eta irteeren adierazpen grafikoa, elementu guztiak adieraziz. (0,4)

(Oharra: azkeneko emaitza bi hamarrenetara biribildu)

2. ariketa**1,5 puntu**

Enpresa baten kapital sozialaren balioa 160.000 eurokoa da, eta 200.000 akziotan banatuta dago. Akzio bakoitzaren merkatu balioa izendunaren %150a da. Enpresaren erreserben kopurua guztira 40.000 eurokoa da. Honako hau kalkulatu:

- a. Akzioen balio izenduna, kontabilitate balio teorikoa eta merkatu edo kotizazio balioa. (0,3)

Enpresak 40.000 akzioko kapital zabalkuntza egin behar du, eta bakoitza balio izendunaren %120an salduko da.

Lasa andereak kapital zabalkuntza aurretik enpresaren jabetzaren %5a zuen.

- b. Jasoko dituen lehentasunezko harpidetza-eskubideen bidez eros daitezkeen akzio berri guztiak erosten baditu, zenbat ordaindu beharko du? (0,3)
- c. Kapital zabalkuntzaren akzio berriak erosteari uko egingen balio, zenbat diru jasoko luke lehentasunezko harpidetza-eskubideak saltzeagatik? (0,3)
- d. Eros ditzakeen akzioen erdia soilik hartuko balitu, zenbat ordainduko luke akzioen truke eta zenbat kobratuko luke soberan geldituko litzaizkiokeen eskubideen truke? (0,3)
- e. Bazkide ez den Etxaburu jaunak 3.000 akzio berri erosi nahiko balitu, zenbat ordaindu beharko luke beharrezko eskubideak lortu eta akzioak erosteagatik? (0,3)

(Oharra: azkeneko emaitzak bi hamarrenetara biribildu)

3. ariketa**1,5 puntu**

Honako ekuazioek herrialde baten funtzionamendu ekonomikoaren irudikapen sinplifikatua eskaintzen dute:

- Kontsumo pribatua (K) errenta erabilgarriaren (Y_d) arabera: $K = 0,75Y_d$
- Enpresa-inbertsioa (I) interes-tasaren (i) arabera: $I = 1.300 - 600i$
- Gastu Publikoa: $G = 1.500$
- Zerga-tasa: $t = 0,20$
- Diru-eskari erreala (L^d) interes-tasaren (i) arabera: $L^d = 5Y - 30.000i$
- Diru-eskaintza nominala: $M^s = 2.500$
- Prezio-maila (P): $P = 2$

- a) Kalkula ezazu orekako errenta-maila eta interes-tasa. (0,5)

- b) Kalkula ezazu eskari erantsiaren kurba aurreko eredutik abiatuta. (0,5)

Identifikatutako desberdintasun sozialak murrizteko asmoz, Estatuak gastu publikoa handitzea erabaki du.

- c) Adieraz ezazu Estatua zer politika mota egiten ari den eta politika mota honek herrialdeko adierazle makroekonomikoei eta eragile ekonomiko bakoitzari nola eraginen dion. Osa ezazu zure azalpena grafikoak erabiliz. (0,5)

(Oharra: azkeneko emaitza bi hamarrenetara biribildu)

4. ariketa

1,5 puntu

PANTAILA BIZIAK EMS enpresa pelikulak euskara hutsean streaming bidez ematen dituen enpresa bakarra da, eta haren guztizko kostuen funtzioa $k(q) = 5.000 + 2q$ da. Enpresa honen eskaria $q^D = 6.000 - 250P$.

- a) Kalkula ezazu enpresa honek lortzen duen gehieneko irabazia. (0,5)

Enpresak bere bezeroak bi taldetan banatzen direla identifikatu du: lehena euskara ikasleek osatzen dute, eta horien eskaria $q_1^D = 1.000 - 50P_1$ da eta bigarrena, berriz, zinemazaleek osatzen dute, eta hauen eskaria $q_2^D = 5.000 - 200P_2$ da.

- b) Kalkula ezazu enpresak merkatu bakoitzean ezarriko duen prezioa, etekinak maximizatu nahi baditu, eta zein izango diren irabazi berri horiek. (0,5)

- c) Kalkula ezazu kontsumitzailearen ongizatea eta ekoizlearen ongizatea, euskara ikasleen merkaturako. Lortutako emaitzak grafikoki adieraz itzazu. (0,5)

(Oharra: azkeneko emaitza bi hamarrenetara biribildu)

5. ariketa**2 puntu**

Enpresa batek fotokopiagailu bat *leasing* eragiketa baten bidez eskuratu du 30.000 eurotan. *Leasing* kontratuaren baldintzak honakoak dira:

- Iraupena: 4 urte
- Ordainketa: urteko kuota aurreordaingarriak
- Interes-tasa: % 5
- Hondar-balioaren zenbatekoa: kuota bat
- BEZaren tasa: % 21

a) Kalkula ezazu urtero ordaindu beharko lukeen kuota.

(0,4)

Beste enpresa batek antzeko kontratua sinatu du. Baldintza guztiak berdinak dira bat izan ezik: hondar balioa 12.000 eurokoa da.

b) Kalkula ezazu baldintza berriarekin urtero ordaindu beharko lukeen kuota eta osa ezazu *leasing* amortizazio taula zutabe hauek erabiliz:

Urtea, Kuota, Interesa, Amortizazioa, Amortizatuta guztira, Amortizatu gabea, BEZa eta Ordainduta.

(0,8)

Beste enpresa batek fotokopiagailua finantzatzeko *leasing* moduko kontratua eskaintzen du, baina aldaketa hauek proposatzen ditu:

- Iraupena: 14 urte.
- Ordainketa: urteko kuota aurreordaingarriak. Azken zazpiak lehenengo zazpi zenbatekoaren bikoitza izanen dira.
- Interes-tasa: % 3.
- Hondar-balioaren zenbatekoa: Lehenengo zazpi urteko kuotaren hirukoitza.
- BEZaren tasa: % 21.

c) Osa ezazu *leasing* amortizazio taularen 10. urteko errenkada zutabe hauek erabiliz:

Urtea, Kuota, Interesa, Amortizazioa, Amortizatuta guztira, Amortizatu gabea, BEZa eta Ordainduta.

(0,8)

(Oharra: azkeneko emaitza bi hamarrenetara biribildu)

Honako prentsa-artikulutik abiatuta, egin testu-iruzkin bat, testuak planteatutako argudioak eta ideiak aztertuz, kontzeptu makroekonomiko garrantzitsuekin loturak eginez.(300 hitz gehienez).

NEURTZEN EZ DUTEN ETA AGINDU BESTERIK EGITEN EZ DUTEN MEZU ETA ADIERAZLEAK

Europako Banku Zentralak eta Nazioarteko Diru Funtsak aurtengo aurreikuspen ekonomikoen berrikuspenaren berri eman zuten. Espero zitekeen bezala, ez ziren oso baikorrak izan. Europako Banku Zentralaren azterketa 79 konpainiari bakarrik egindako inkesta batean oinarritzen da; oso kopuru txikia, konpainiak handiak izan arren. Honekin guztiarekin, euroaren bankuak orokortu eta adierazi du enpresek “etenaldi bat egin dutela beren inbertsio batzuetan”, muga-zergek eragindako aldaketak noraino iritsi diren ebaluatu arte. NDFk, bestalde, ez du bere kalkuluen xehetasunik eman, baina BPGaren hazkunde-tasen beherakada orokorra aurreikusten du, muga-zergek eta merkataritza-gerrak munduko hornidura-kateetan izango duten eraginaren ondorioz.

Bi analisietako batek ere ez du gako berririk eskaintzen. Hala ere, nabarmentzekoa da bi erakundeek helarazten duten mezua. Europako Banku Zentralak azpimarratu du muga-zergen ondorioz prezioak igoko direla, globalizazioaren garaian industriaren deslokalizazioarekin batera antolatutako fabrikazio-eredu jasanezina zalantzan jarri gabe. Europako Banku Zentralarentzat, muga-zergak arazo dira eragin handia izanen dutelako, baina argi dago, ez direla desoreka ekonomiko bakarra eta nagusia. Gainera, Alemanian eta EBn gastu militarra handitzeak enpresa-jardueran izanen duen eragin positiboa azpimarratu zuen EBZk. Horrela, EBZa mezu manikeo bat eraikitzen saiatzen da, muga-zergak berez txarrak direla agerian utziko lukeena, baina gastu militarra, aldiz, ona, enpresen jarduera sustatzen baitu. EBZk bere jarrera instituzionala erabiltzen du EBaren egoera ekonomikoaren eta politiken irakurketa partziala eta alderdikoari sostengua emateko.

Bestalde, NDFk nabarmendu du Espainiako Estatuaren aurreikuspena baino ez duela hobetzen, eta arrazoi nagusitzat jo du Valentziako *Danaren* osteko berreraikuntza. Horrela, nabarmentzen du ekonomia – eta bere adierazle nagusia, BPG – ongi doala, hain zuzen ere, ezbehar bat gertatzen denean. Ekonomiaren hobekuntzak ongizatearekin zerikusi gutxi duela erakusten duen beste adibide bat. Ildo honetan, komenigarria litzateke BPGren hazkundera bezalako adierazleak baztertzen hastea, eztabaida politikoa nahastu baino ez baitute egiten.

GARA, 2025eko apirilaren 23a. EDITORIALA. “Mensajes e indicadores que no miden, solo dictan” irakurketatik itzulua.